

1. NORENTZAT :

A ereduko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoko ikasleentzat.

Taldeak ezin izango dira 20 ikaslekoak baino handiagoak izano eta, ahal den neurrian, talde naturalei eutsiko zaie.

Maila bakoitzeko eskaera bat egin beharko da.

Ikastetxeek nahi beste tailer eskatu ahal izango dituzte.

Ikastetxe bakoitzari esleitutako tailer kopurua ikastetxeak eskatutako kopuruaren eta izandako eskaera guztien araberakoa izango da eta, beti ere, izena emateko ordena kontuan hartuta.

2. TAILER MODALITATEAK

Bi tailer modalitate daude:

- A: 3 eskola saioko 5 egunekoak.
- B: 3 eskola saioko 3 egunekoak.

Tailerrak eskola ordutegiaren barruan izango dira eta enpresa esleipendunaren eta ikastetxearen artean hitzartuko dira esleipena egin ondoren.

3. IRAKASLE ARDURADUNAREN LANA:

Arloko irakasleak, bere ordutegiak hala ahalbidetuta, bere taldearekin parte hartu beharko du tailerretan.

4. TXANDAK:

2024KO URTARRILA - MAIATZA

TXANDA	DATAK
1	15/1 - 19/1
2	22/1 - 26/1
3	29/1 - 2/2
4	5/2 - 9/2
5*	14/2 - 16/2 (*3 egun: inauteri astea)
6	19/2 - 23/2
7	26/2 - 1/3
8	4/3 - 8/3
9	11/3 - 15/3
10	18/3 - 22/3
11	8/4 - 12/4
12	15/4 - 19/4
13	22/4 - 26/4
14	6/5 - 10/5
15	13/5 - 17/5
16	20/5 - 24/5
17	27/5 - 31/5